

Kriminologia ikasi, zertarako?

Ainboa CELAYA

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Kriminologiaren funtzioa.-III. Kriminologia eta beste diziplinekiko lotura.-IV. Kriminologia eta Euskal Herriko Unibertsitatea: 1. Gaitasunak.-2. Gaitasunak mailaz maila.- V. Irtenbideak- VI. Kriminologia eta hizkuntzalaritza: 1. ForensicLab.- VII. Erakundeak eta elkarteak: 1. EAE mailan: 1.1. Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC/KREI): 1.1.1.Zientzia kriminalen inguruko ikerketa-taldea (GICCAS).-1.1.2. DSM Ikerketa-taldea.-1.1.3. Antonio Beristain Katedra.-2. Estatu-mailan: 2.1. SEIC.-7.2.2. SCEC.-2.3. FACE.-2.4. SEIPC.-2.5. SECCIF.-2.6. SECRIM.-2.7. Laxhmi.- 2.8. Kriminologiari buruzko Andaluziako unibertsitate arteko Institutua.-2.9. ICOC.-VIII. Bibliografia.

I. Sarrera

Kriminologia izugarri garatzen joan da azken lau hamarkadetan. Horrela, teoria berriak garatzen joan dira. Horietako batzuk teoria tradizionaletan oinarritzen dira, beste batzuk, ordea, teoria berritzaileak dira eta gainerakoak teoria desberdinen nahasketa dira. Esan genezake, kriminologia diziplina desberdinetan duela jatorria. Horrela, biologoek, psikologoek, soziologoek, ekonomistek, juristek eta beste asko, delituaren ikerketan paper garrantzitsua izan dute zenbaitetan. Beraz, kriminologiak delituaren inguruko faktore desberdinak ikertzen ditu ikuspuntu desberdinetatik.

Faktore hauetako batzuk jatorri biologikoa izango dute, adibidez, herentzia genetikoa edo garuneko lesioak; beste batzuek izaera psikologikoa izango dute, hala nola, pertsonalitatearen ezaugarri jakinak edo intelijentzia maila; beste faktore batzuek jatorri soziologiko bati erantzungo die, adibidez, familia, eskola, pareak, lana, komunitatea... Bestalde, kriminologiak, denborak aurrera egin ahala, bestelako garapen kritiko garrantzitsuak bultzatu ditu: kriminologia feminista, kriminologia postmodernoa, kriminologia berdea, kriminologia erradikala, etab.

II. Kriminologiaren funtzioa

Kriminologiak delitua aztertzen du fenomeno sozial eta indibidual gisa eta delituaren kausez eta honen zabaleraz arduratzen da. Politika kriminala ere hartzen du kontutan, hau da, delituaren kontrol eta prebentzio moduak aztertzen ditu. SUTHERLAND autorearen kontzeptzio klasikoaren arabera, Kriminologia “delitua fenomeno sozial gisa ulertuz, honi buruzko ezagutzen gorputza da”. Gaur egun, kriminologia honela definitu daiteke: portaera deliktibotik eratortzen diren krimena, delitugilea, biktima eta kontrol soziala objektu dituen diziplina artekoa den zientzia enpirikoa.

Kriminologiak metodo zientifikoen erabilera egiten du delitua aztertzerako orduan. Ondorioz, zientzia bati buruz ari gara. Errealitatea deskribatzen eta aztertzen du, eta horretarako, behaketa, gertakizun enpirikoak, esperimentazioa, esperientzia etab erabiltzen ditu. Horrela, kriminologiak delituaren fenomenoak, existitzen diren teoria desberdinen bidez aztertzeaz gain, metodologiaren ikerketa ere egiten du, delituaren, delitugilearen, biktimaren zein kontrol sozialaren behaketa egiteko hainbat tekniken bidez: elkarrizketak, estatistika ofizialak, autoinformeak...

Alde batetik, kriminologiak delituaren kausak aztertzen ditu, hau da, delituaren ikuspegi etiologikoa jorratzen du. Delituaren kausak azaltzen dituzten teoria desberdinak daude: Ikaskuntzaren Teoria, Frustrazioaren Teoria, desantolaketa sozialaren teoria edo Anomiaren Teoria, besteak beste. Teoria hauek guztiek zenbait pertsonak delituak zergatik burutzen dituzten azaltzen dute eta herrialde konkretuetako delinkuentzia indizeak aztertzen dituzte.

Bestetik, delituari aurre egiteko estrategiak ere garatzen ditu, delituaren kontrol eta prebentzio gisa. Gainera, kriminologiak delituaren neurketa eta honen zabalera ere ikertzen du. Leku zehatz batean eta momentu konkretu batean delitu kopuruak neurtzen ditu. Bestalde, urteetan zehar delituaren joera nolakoa izan den ere aztertzen du. Horrez gain, herrialdeen arteko ikerketa konparatuak ere eramaten ditu aurrera.

Horrez gain, legeen azterketa ere egiten du, bereziki zigor Zuzenbideko legeena. Zergatik portaera jakinak horren gogortasunez zigortzen dira?; zergatik zenbait portaera ez da kontsideratzen delitu eta beste batzuk, ordea, bai?

III. Kriminologia eta beste diziplinekiko lotura

Kriminologiak, bai kontzeptualki bai funtzionalki, kriminalak zein ez kriminalak diren beste diziplina batzuekin lotura estua du. Beraz, krimenaren, delitugilearen, biktimaren eta kontrol sozialari buruzko ezagutza desberdinak koordinatzen eta integratzen ditu. Horrela, ezinbestean kriminalak ez diren zientziak eta zientzia kriminalekin lotura duten diziplinak hartzen ditu kontutan. Ezagutza ez-kriminalen artean daude:

- (1) Biologia.
- (2) Psikiatria.
- (3) Psikologia.
- (4) Soziologia.
- (5) Etologia.
- (6) Antropologia.
- (7) Medikuntza.
- (8) Auzitegiko hizkuntzalaritza.

Bestetik, zientzia kriminalekin lotura zuzena duten diziplinak ere jorratzen ditu, hala nola, zigor zuzenbidea eta politika kriminala.

IV. Kriminologia eta Euskal Herriko Unibertsitatea

Valentziako Kriminologiao Elkarte Profesionalak (APCV), Alikanteko Kriminologoen Elkarteak (ACRA) eta Valentziako eta Castelloneko Kriminologoen Elkarteak (ACRIVAC), indibidualki, 2008. urtean kriminologiaren elkargo ofizialak sortzea eskatu zuten. 2003. urtera arte, Espainiako unibertsitate gehienek kriminologia berezko titulu gisa eskaintzen zuen, beraz, ez zen ofiziala kriminologiako gradua. Ondoren, kriminologiako ikasketak dekretu bidez, bigarren zikloko lizentziaturan barneratu ziren. 2006. urtean, Valentziako Kriminologian lizentziaturiko lehen promozioa eman zen, ziurrekin Espainiako lehenetarikoa.

Ikus, *ABC* egungariko artikulua:

<http://www.abc.es/local-comunidad-valenciana/20140115/abci-colegio-criminologos-201401151339.html>

Espanian, beraz, Kriminologiari dagokionez, aurrerapauso handiak eman dira. Alde batetik, oinarri enpirikoa duten eta arazo kriminala aztertzen duten Unibertsitate eta EHUKo Zuzenbide Fakultatea: *Kriminologia ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria*, 1. zb., 2015

ikasketa zentro berriak sortu dira, Unibertsitate desberdinetan berezko titulu propioa izanik. Gainera, kriminologia, diziplina bezala Zuzenbideko ikasketa planetan txertatzen da aukerazko irakasgai gisa. Beste alde batetik, ezaugarri zientifiko-kriminologikoa duten argitalpenak areagotzen joan dira, kriminologiaren metodologia eta kalitatea hobetuz joan delarik. Ondorioz, gehiago eta kalitate hobegorekin publikatzen dira artikulu kriminologikoak eta jada, krimenaren inguruko lan enpirikoak ez dira bigarren plano batean geratzen penalisten aldetik. Hala ere, kriminologiak eremu zientifikoan, akademikoan, instituzioetan eta gizartean bere leku propioa har dezan, ibilbide luzea gelditzen zaio oraindik.

Euskal Herriko Unibertsitateak ikasleak trebatzea du helburu ezagutza zientifikoaren alorrean bai delituaren prebentzioari eta tratamenduari, bai eta herritarren segurtasunari bideratutako politikari dagokienez. Horrela, kriminologiako ikasketak ikerketa zientifikoaren aurrerapausoetara egokitu beharko dira, kriminologia etengabe garatzen doan diziplina baita. Aurretiaz aipaturiko ezagutzak uztarturik kriminologiaren programa-akademikoa jorratzen da. Bestalde, eduki teorikoen gain, eduki teoriko hauek praktikan jartzea ere bilatzen du.

Hainbat gaitasun orokor jorratzea ahalbidetzen du kriminologiaren ikaskuntza-planak. Horien artean:

- (1) Ahozko zein idatzizko komunikazio-gaitasunak menderatzea.
- (2) Informazio-iturri desberdinen kudeaketa egokia.
- (3) Erabakiak hartzeko gaitasuna.
- (4) Egoera berriei aurre egiteko eta hauetara egokitzeko gaitasuna.
- (5) Antolaketa eta plangintzak egiteko ahalmena.

1. Gaitasunak

Kriminologiarekin lotura duten lanbide-profesionalei begira, kriminologiaren ikasketek hainbat gaitasunen kudeaketa ahalbidetzen du, besteak beste:

- (1) Portaera kriminalaren, honen prebentzioaren zein biktimen tratamenduaren oinarri terminologikoak, oinarritzko ezagutza antropologikoak, juridikoak eta soziologikoak eskuratu eta ulertzea. Horretarako, sistematizatzeko gaitasuna, analisi kritikoa, loturak ezartzeko, integratzeko eta laburtzeko gaitasunak jorratzen dira. Hau guztia, oinarritzko eskubideak diren berdintasunarekin, diskriminazio-ezarekin eta bakearen aldeko kulturarekin integratuz eramaten da aurrera.
- (2) Bereganatutako ezagutza eta teknikak aplikatzen jakitea, delitugileengana zein biktimengana zuzendutako esku hartzeak aurrera eramaterakoan, egoera kriminologikoen ebaluazioa eta analisia egiterakoan, delinkuentziaren tratamendu eta prebentzio egoki bati bai eta proiektuen formulazio, diseinu eta kudeaketari begira.
- (3) Indibidualki zein talde-lanean informazio garrantzitsua laburtzen jakitea informazio-iturri desberdinen erabilera egokia eginez. Bestalde, eskuratutako datuak ulertzen eta interpretatzen jakitea, teoria desberdinen arteko lotura eginez eta diziplinartekoa den talde lanaren bidez.
- (4) Argumentu eta proposizio berrien aurkezpen egoki eta ordenatuak egiteko gaitasuna eskuratzea datu eta informazio desberdinen bidez. Bestalde, Ahozko zein idatzizko komunikazioa jorratzea genero berdintasuna eta gatazken konponketen kultura baloratuz.
- (5) Ikaskuntza gaitasunak bereganatzea modu autonomoan eta jarraituan ikaslearen ikaskuntza-prozesua gestionatzeko bai eta ondorengo espezializaturiko ikaskuntzei aurre egiteko helburuz.

2. Gaitasunak mailaz maila

1. maila

Kriminologiaren alorreko oinarrizko kontzeptuak, teoriak eta terminologia eskuratuko dira zuzenbidea, psikologia, soziologia eta kriminologiari dagokionez. Bestalde, oinarrizko kontzeptu, teoria eta terminologia hauek modu praktikoan jorratzen ikasiko da. Horrez gain, kriminologiaren inguruan dauden ezagutzak eskuratzeko oinarrizko informazioa eta dokumentazioa ezagutuko dira bai Interneten bai bibliografiaren bidez. Gainera, ahozko komunikazioa landuko da baina bereziki idatzizkoa klase praktikoen eta lanen aurkezpenen bidez.

Ondorioz, lehenengo mailan kriminologiarako sarrera egiten da, kriminologia osatzen duten diziplinetatik oinarrizko dogmatika eta informazioa eskuratuz. Zuzenbidea bereziki jorratuko da baina honekin batera, antropologia, psikologia, soziologia eta kriminologiaren printzipioak landuko dira.

2. maila

Kriminologia graduko 2. mailan, biktimologia, zuzenbidea, psikologia eta medikuntzaren oinarrizko ezagutzak bereganatuko dira. Bestalde, zientzia sozialetako metodologia zein den ezagutuko da. Bestetik, lehenengo mailan bezala, informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko baliabideak eta iturriak landuko dira. Horrez gain, ahozko zein idatzizko komunikazioak landuko dira talde laneko jardueren bidez.

Beraz, jada kriminologiaren berezko irakasgaiak landuko dira krimena edo delitua oinarrian duten irakasgaiak, hala nola, biktimimologia, gazte delinkuentzia, krimen arloko politika, krimenaren fenomenologia zein lege medikuntza. Bestalde, zuzenbidea propioki landuko da, zigor zuzenbidea, zuzenbide prozesala eta kulturartekotasuna bezalako irakasgaien bidez.

3. maila

3. mailan, zenbait kontzeptu eta teoria kriminologikoetan sakonduko da: gatazken kudeaketa eta konponketa, desbiderapen soziologikoa, espetxe-sistemak, delitugileen zein biktimen tratamendu psikologikoa, mendekotasun nahasteak... 3. maila honetan zuzenbideak ez du paper garrantzitsu bat izango. Bestetik, datuen analisia eta diseinuetan formazio eskainiko da gaitasun metodologikoak hobetzeko. Gainera, eskuratutako informazioaren analisi kritikoa egiten ikasiko da informazioaren aurkezpen sistematizatua egiteko gaitasuna eskuratuz.

Hirugarren maila honetan, nahiz eta irakasgaien izenak euskaraz eman, aukerazkoak diren zenbait irakasgai ez dira euskaraz eskaintzen. Adibidez, adingabeen babes juridikoa eta familia, esku-hartze psikosozialerako programen ebaluazioa zein segurtasun pribatua.

Aipatu beharra dago, hirugarren maila honetan euskararen erabilera bereziki lantzen duten irakasgaiak eskaintzen direla bi lauhilekoetan: lehenean, *Euskararen Arauak eta Erabilerak* irakasgaien, Administrazioan, Zuzenbidean eta Kriminologian erabiltzen den terminologia, hizkera eta testugintza lantzen da. Horretarako, ikasleek eskura duten hainbat baliabide(hiztegiak, inprimakiak, corpusak...) landuko dira. Bigarrenenean, *Komunikazioa Eskaraz: Arlo Juridikoa* irakasgaien, Administrazioan, Zuzenbidean eta Kriminologian erabiltzen eta lantzen diren dokumentu-eredu nagusiak interpretatu eta landuko dira (gutun formala, akta, ebazpena, argibide-testua...). Horrez gain, alor hauetan maiz erabiltzen den terminologiaren erabilera egokia azalduko da eta gaztelaniazko euskarazko ordezkotako termino

egokienak ere jorratuko dira. Hau guztia, interneten bidez, baliabide desberdinetan kontsultak eginez eramango da aurrera.

Beraz, euskararen erabilerara zuzendutako bi irakasgai hauetan, hizkera juridikoa zein kriminologikoa lantzeaz gain, bestelako gaitasunak ere jorratzen dira: talde-lanean aritzea, jarduerak egunean eramatea eta informazioa bilatzeko, interpretatzeko, lantzeko eta sintetizatzeke gaitasuna.

4.maila

4. maila honetan, arau penal eta prozesalen ezagutzan sakonduko da zigor kontrolera zuzendutako instituzioen analisi kritiko bat eginez. Gaitasun horiek honako irakasgaien bidez jorratuko dira: delituaren eta zigor kontrolaren soziologia, delituen eta zigorren bilakaera historikoa, globalizazioa eta zigor sistema eta zuzenbide prozesala. Bestalde, antropologia, psikologia juridikoa eta inguruneko kriminologia ere landuko dira.

Esan beharra dago, irakasgai gehienak hautazkoak direla eta ondorioz gaztelaniaz eskainiko direla.

Bestalde, unibertsitateaz kanpo burutuko diren praktikak ere jorratuko dira. Horrela, arazo kriminologiko zehatzak aztertuko dira ikuspegi desberdinetatik. Momentuz, bost praktika-gune daude:

- (1) Segurtasun kidego eta indarrak, hala nola, Ertzaintza eta tokiko polizia.
- (2) Biktimgana zuzendutako harrera zerbitzua.
- (3) Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAP/KREI).
- (4) Aranzadi elkarte.
- (5) Irabazi asmorik gabeko erakundeak. Adibidez, *Proyecto Hombre, Arrats...*

Praktikez gain, gradu amaierako lan berritzaile bat burutu beharko da, idatziz emaitzak erakutsiz eta ahozko aurkezpen bat eginez epaile batzuen aurrean, hauek aurkezpenaren balorazio bat egingo duten heinean.

V. Irtenbideak

Hasteko, esan beharra dago Espainiako estatuan hainbat unibertsitatek eskaintzen dituela kriminologiako ikasketak.

Ikus, <http://universidades.consumer.es/grados/criminologia>

Kriminologiako profesionalak ikerketa kriminologikoaren alorreran, segurtasun publikoan zein pribatuan, espetxe-zentroetan, justizia administrazioan zein auzitegiko zientzietarka bideraturiko zentroetan garatu dezakete beraien formazio profesionala. Hauek dira horietako batzuk:

Ikus, <http://www.ui1.es/oferta-academica/grado-en-criminologia/salidas-profesionales>

- (1) Segurtasun pribatura zuzendutako enpresen zuzendaritza.
- (2) Segurtasun kidego eta indarrak.
- (3) Justiziako auzitegietako peritu kriminologoa.
- (4) Peritu kriminologoa espezialitate desberdinetan:
 - (a) Sute eta eztanden ikerketa.
 - (b) Documentoskopia y perizia kaligrafikoa.
 - (c) Begi-inspekzioak eta lofoskopia.

- (d) Auzitegiko infografia.
- (e) Auzitegiko akustika.
- (f) Auzitegiko entomologia.
- (g) Auzitegiko genetika.
- (h) Gauzen gaineko kalteak.
- (i) Istripuak (trafikoa, lan eremukoak,...).
- (5) Zaintzapeko askatasunaren delegatua.
- (6) Legezko aholkularitza eta aholkularitza kriminologikoa.
- (7) Ikertzaile pribatuak.
- (8) Adingabeen, familiaren, delituen biktimen, bitartekaritza penalaren eta genero indarkeriaren inguruko tratamendu kriminologikoen aholkularitza.
- (9) Bitartekaritza penala.
- (10) Bitartekaritza familiarra.
- (11) Peritu eta aholkulari kriminologoa.
- (12) Espetxe instituzioetako tratamendu taldeko kidea.
- (13) Ikerketa poliziala.
- (14) Unibertsitateko irakaskuntza eta formazio jarraitua.
- (15) Ekintza eta politika kriminala.
- (16) Abokatu, politiko eta segurtasun enpresen aholkularitza.
- (17) Parte hartzea dibulgaziozkoak diren edota komunikazio bitartekoetako gertakarien programetan.
- (18) Delituaren prebentzioa.
- (19) Prebentziora eta esku-hartzera zuzendutako programen diseinu eta gestioa.
- (20) Aholkulari kriminologikoa bitartekoetan.
- (21) Aholkulari kriminologikoa udaletxean.
- (22) Eraikuntza eta urbanizazioetako diseinuen aholkulari kriminologikoa.
- (23) Dibulgatzaile kriminologikoa ahozkoak edota idatzizkoak diren bitartekoetan.

VI. Kriminologia eta hizkuntzalaritza

Kriminologiak zuzenbideak bezala berezko terminologia duela kontuan izanik, garrantzitsua izango da kriminologiak hizkuntzalaritzarekin duen lotura aztertzea. Bereziki alor honetan jarduten duten elkarte eta institutu desberdinak daude. Hona, horietako batzuk:

1. ForensicLab

Auzitegiko Hizkuntzalaritzako Laborategia da, *Institut Universitari de Lingüística Aplicada (IULA)* Institutukoa. Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko zentroa da, auzitegiko hizkuntzalaritzan ikerketak egin eta ekintzak martxan jartzen dituena. Auzitegiko hizkuntzalaritzaren kontzeptuak hizkuntza eta zuzenbidearen eremuak jorratzen ditu eta hiru eremu nagusietan oinarritzen da: lengoia juridikoa, lengoia judiziala eta frogatzailearen lengoia.

- (1) Lengoia juridikoaren eremuan jorratzen diren alorrak hauek dira:
 - (a) Lege-dokumentuen ulermena.
 - (b) Lege-testuen interpretazioa eta analisia.
 - (c) Genero juridikoak.
 - (d) Hizkuntza juridikoaren historia.
 - (e) Diskurtso-juridikoa.

Informazio gehiago web orrialdean: http://forensiclab.iula.upf.edu/srv_legal_esp.html

- (f) Testuinguru judizialeko eleaniztasuna.
 - (g) Baliabide juridikoetako diskurtsoaren analisisa.
 - (h) Auzitegi-sisteman hizkuntza eta diskriminazioa.
 - (i) Hizkuntza-gutxiengoak eta auzitegiko sistema.
 - (j) Hizkuntza-eskubideak.
 - (k) Eskubidea eta boterea.
 - (l) Kulturartekotasuna eta bitartekaritza eremu judizialean.
- (2) Lengoia judizialeko eremuan honakoa lantzen da:
- (a) Kide judizialen lengoia (epaileak, letratuak, erruztatua, lekukoa).
 - (b) Kalteberak diren lekukoen elkarrizketak.
 - (c) Galdeketa-poliziala.
 - (d) Asilo-politikoaren eskaeraren eremuan hizkuntza-frogak.
 - (e) Auzitegi elebidunak, bigarren/hirugarren hizkuntzak.
 - (f) Auzitegiko interpretazioa eta itzulpengintza.
 - (g) Auzitegiko diskurtso eta interakzioa.
 - (h) Polizia-diskurtsoa.
 - (i) Zuzenbide anglo-saxoiko auzitegi-sistema eta auzitegi-sistema kontinental.
- (3) Froga eta ebidentziaren lengoaiaren eremuan ondorengoa lantzen da:
- (a) Frogen erabilera auzi penaletan.
 - (b) Erantzulearen egozpena jasotzen duten testu idatziak (buruaz beste egitearen oharra...) eta auzi zibilak (iruzurraren detekzioa...)
 - (c) Marka eta patenteen auziak, kontratuei buruzko auziak, difamazio auziak... etiketazko eta produktu komertzialak.
 - (d) Dialektologia, soziolinguistika, semantika, pragmatika eta auzitegiko psikolinguismoa.

ForensicLabek eskaintzen dituen zerbitzuak bere web orrialdean aurki daitezke.

Ikus, http://forensiclab.iula.upf.edu/index_esp.html.

ForensicLabeko hizkuntzalariak *International Association of Forensic Phonetics* (IAFP, St. John's College, York, 1991) elkarteko, gaur egun, *International Association of Forensic Phonetics and Acoustics* (IAFPA), eta *International Association of Forensic Linguists* (School of English, University of Birmingham, 1992) elkarteko kideak dira.

Ikus, <http://www.iafl.org/>.

VII. Erakundeak eta elkarteak

1. EAE mailan

1.1. Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC/KREI)

IVAC-KREI Euskal Herriko Unibertsitatearen Ikerkuntzako Unibertsitate Institutua da, fakultate eta sail arteko izaera duena. Ondorioz, ez da fakultate edo sail baten menpekoa, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek eta bere Araudiak ematen EHUKo Zuzenbide Fakultatea: *Kriminologia ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria*, 1. zb., 2015

dioten autonomia dauka. Gaur egun, José Luis de la Cuesta Arzamendi irak. dk. jauna da Institutuaren zuzendaria.

Institutuak harreman zientifikoa du, NBERen organo aholku-emaile den [Kriminologiako Nazioarteko Elkartearekin](#). Elkarte horrekin sinatutako lankidetzahitzarmenean oinarrituta, [Delinkuentzia, Bazterkeria eta Gizarte Harremanei buruzko Nazioarteko Ikerkuntza Zentroa](#) sortu zen. 2006ko hasieraz geroztik, César San Juan Guillén Irak. dk. jaunak zuzentzen du, Carlos Suárez González irak. dk. jaunaren ordezkari. Bere jarduerak jasota dago, halaber, Eguzkilore Kriminologiaren Euskal Institutuaren Aldizkarian 1987az gero argitaratutako urteko memoriatan.

Ikus, <http://www.ehu.es/eu/web/ivac/argitaratuta-aldizkariak>.

Institutu honen barnean ikerketa-talde desberdinak aurkitzen dira:

1.1.1. Zientzia kriminalen inguruko ikerketa-taldea -GICCAS- (Egonkortutako ikerketa-taldea EHU/UPV)

Honen ikerketa jarraibidea hauek dira:

- (1) Politika kriminala eta praktika penalak.
- (2) Gazte delinkuentziaren aspektu penal, kriminologiko eta biktimologikoak.
- (3) Segurtasun politikak.
- (4) Justizia biktimala eta leheneratzeailea.
- (5) Drogen aspektu juridiko-kriminologikoak.

1.1.2. [DSM](#) Ikerketa-taldea. (Delinkuentzia, Bazterketa eta Harreman Sozialen inguruko Ikerketaren Nazioarteko Zentroa).

Honen ikerketa jarraibidea hauek dira:

- (1) Haurtzaroa, gaztaroa eta arriskua.
- (2) Gune publiko seguru eta baketsuak.
- (3) Kriminalitatearen eta Justizia-sistemaren analisi psikosoziala.
- (4) Erasotzaile sexualak.
- (5) Testuinguru digitaletan arriskuaren pertzepzioa.

DSMak burututako aurretiazko ikerketak:

- (1) Gazte delitugileak eta drogen kontsumoa: profil psikosozial eta deliktiboa.
- (2) Haurren babesera zuzendutako zerbitzuen ebaluazioa: ahultasun bereziko egoeretan dauden gazteen tipologia eta hautemandako beharrianak.

1.1.3. Antonio Beristain Katedra

Antonio BERISTAINek 70eko hamarkadan sortutako eta 2000.urtera arte zuzendutako Kriminologiaren Euskal Institutuaren baitako programa espezifikoa giza sortu zuen 2010ean. Katedraren helburu nagusia Antonio BERISTAIN IPIÑA irakasle doktorea denboran zehar gogoratzea da eta bere bizitzako azken etapan biktimen alde egindako proiektuarekin jarraitzea. Horrela, biktimologiarekin loturiko irakaskuntza sustatzen da, bai ikerketan bai unibertsitate zabalkuntzan.

Bestalde, Katedra honek biktimologiaren arloko ikasketak, ikerketak eta jarduerak bultzatzen eta garatzen ditu bestelako erakunde, organismo eta entitateekin itunak eta harremanak sinatuz.

Euskal Herriko Unibertsitateko webgune honetan, Antonio BERISTAINek burututako lanak, idatziak, artikulua eta liburuak eskuratu daitezke.

Ikus, <http://www.ehu.es/es/web/ivac/antonio-beristain-ipina>

Bestalde, Antonio BERISTAINEN bestelako argitalpenak ere aurki daitezke:

- (1) [Online-argitalpenak](#)
- (2) [Eguzkilore aldizkarian egindako ekarpenak](#)
- (3) [Bestelako argitalpenak](#)

2. Estatu-mailan

Estatu-mailan ikerketa kriminologikoan oinarritzen diren hainbat erakunde daude. Besteak beste:

2.1. [SEIC \(Sociedad española de investigación en Criminología\)](#)

Elkarte honen helburu nagusia ikerketa kriminologikoak sustatzea da bai ikaskuntza eremuan bai instituzionalean. Kriminologian barneraturik dauden ikerlari eta adituak ikerketa-lanetan murgiltzea saiatzen da. Elkarte honen interesa erabat zientifikoa da eta etorkitzunera begira zientzialarien arteko komunikazio-loturak jorratzea da, horrela, ikerketa-emaitzen transferentzia sustatuz bai eremu nazionalean bai nazioartekoan. Horretarako, ezinbestekoa da kriminologiara zuzendutako komunitate zientifikoaren promozioa egitea, kriminologia sustatuko duena tresna solidario eta demokratiko gisa.

Bertako webgunean elkartearen aldizkariko artikulua eskura daitezke.

Ikus, <http://reic.criminologia.net/>

2.2. [SCEC \(Sociedad Científica Española de Criminología\)](#)

1980. urtean sortutako eta 2008an berriz martxan jarritako entitate juridikoa da, izaera filantropikoa duena.

Entitate honek egindako argitalpenak aurki daitezke bere web orrialdean.

Ikus, <http://www.scec.es/web/index.asp?action=34>

2.3. [FACE \(Federación de Asociaciones de Criminólogos en España\)](#)

1995. urtean sortutako lukro asmorik gabeko entitatea da. Espainian dauden kriminologo oinarrizko elkarteak barnebiltzen ditu. 2008. urtetik, Kriminologiako Nazioarteko Elkartean dago barneratua eta honen helburu nagusia espainiar kriminologo formazioa eta lanbidea defendatu eta sustatzea da. Bestelako herrialde Europar eta Iberoamerikarrek hitzarmenak sinatzen ditu munduan zehar harremanak sustatzeko kriminologo eta entitateen arteko sare egonkor bat osatzeko asmoz. Bestalde, elkarrekin ez dauden bestelako elkarteekin harremanetan jartzen saiatzen da partekatutako interesak defendatzeko asmoz. Gainera, Ikerketa Kriminologikoaren Gunearen (AIC) bidez, Kriminologian bikaintasunezko ikerketa eta formakuntza iritsi nahi da Unibertsitate publiko zein pribatuekin aholkularitza sustatuz, etorkizuneko kriminologo gaitasun eta beharriari dagokienez.

FACE osatzen duten elkarteak hauek dira:

- (1) Kataluniako Kriminologoen Elkarte (ACC)
- (2) Nafarroako Kriminologoen Elkarte Profesionala (APCN)
- (3) Madrilgo Kriminologoen Elkarte (CRIMAD)
- (4) Asturiaseko Kriminologoen Elkarte (ACPA)
- (5) Castilla eta Leoneko Kriminologoen Elkarte (CRICYL)
- (6) Castilla- La Manchako Kriminologoen Elkarte (ACCM)
- (7) Galiziako Kriminologoen Elkarte (CRIGA)
- (8) Alacanteko Kriminologoen Elkarte (ACRA)
- (9) Balearretako Elkarte Kriminologikoa
- (10) Errioxako Kriminologoen Elkarte Profesionala (CrimiRioja)
- (11) Extremadurako Kriminologoen Elkarte (CRIMEX)
- (12) Valentziako Elkarte Profesionala (APCV)
- (13) Granadako Kriminologoen Elkarte
- (14) Ikasketa kriminologikoen Huelvako Elkarte (ONUCCI)
- (15) Kriminologiako Ikasleen Unibertsitate Barneko Elkarte (SIEC)

2.4. [SEIPC](#) (Sociedad Española de Investigación de Perfiles Criminológicos)

Elkarte hau kriminologoez, Kriminalistez, Juristez, Psikologoez, Auzitegi-tako zenbait diziplinetako perituez, kriminologiako ikasleez, Segurtasun Publikoko kideez dago osatuta adituez eta Estatuko ohorezko kideez gain.

2.5. [SECCIF](#) (Sociedad Española de Criminología y Ciencias Forenses)

Irabazi asmorik gabeko elkarte da eta honen helburua segurtasun publikoko, psikologia sozial eta juridikoko, justiziako, ikerketa pribatuko, legezko eta auzitegiko medikuntzako eta ikaskuntzaren eremuko profesionalak batzea da. Elkarte honen funtzioa delitua fenomeno gisa aztertzea da ikuspuntu desberdinetatik, esperientzia ezberdinen partekatzearen eta eskuratutako baliabide desberdinen bidez.

2.6. [SECRIM](#) (Sociedad Española de Criminología)

Irabazi asmorik gabeko elkarte da Kriminologian lizentziaturiko edo graduaturiko kideez eta titulazioko ikasleez osaturik dagoena. Elkarte honen helburua kriminologia zientifikoaren zabalpena egitea da. Kriminologia beharrezkoa den tresna kontsideratzen du gizarte baketsuago eta justuago bat lortzeko bai eta kriminologoen interes profesionalak babesteko.

2.7. [Laxshmi Elkarte](#)

Zuzenbideko eta auzitegiko zientzietako profesionalen taldeak batzen ditu. Gainera, herritarrek boluntarioki parte har dezakete mundu osoko krimenen eta desagerpenen kasuetan, baina bereziki Espainian. Bestetik, krimenaren munduko ikerketa zientifikoa eta prebentzioa eramaten da aurrera.

2.8. Kriminologiari buruzko Andaluziako unibertsitate arteko Institutua

1994an, Kriminologiari buruzko Andaluziako unibertsitate arteko Institutuko Malagako sekzioak Aldizkari Kriminologikoaren argitalpena hasi zuen. Denborarekin, aldizkari honen garrantzia handia bereganatu du Espainian. Urtero Espainian zein kanpoaldean eginiko

ikerketa kriminologikoen emaitzak argitaratzen ditu. Horrela, ikerketa taldeei, instituzio publiko zein pribatuei eta komunikazio bitartekoei krimenari buruzko informazio gaurkotua eta laburtua helarazten zaie. Hemen aurki daiteke aldizkariari buruzko informazioa.

Ikus, <http://www.boletincriminologico.uma.es/>

2.9. ICOC (Ilustre Colegio Oficial de Criminólogos de la Comunitat Valenciana)

Valentziako komunitateak kriminologiako Espainiako lehen elkargo ofiziala sortu du eta kriminologoaren lanbidea errekonozitzera bideratutako tresna da. Berrehun kide inguruz osatuta dago eta elkargoko dekanoa den Pablo Darío Ibáñezek adierazi duen bezala, helburu nagusia, beti interesa sorrarazi duen baina inoiz errekonozimendu nahikorik izan ez duen lanbideari indar handiagoa ematea da, hala nola, kriminologiari.

<http://www.abc.es/local-comunidad-valenciana/20140115/abci-colegio-criminologos-201401151339.html>

Elkargo honen sorkuntzaren bidez, kriminologoaren beharrianak babestu nahi dira. Horrez gain, kriminologoaren lana gizarteari erakutsi eta honen zerbitzuak, iritziak, balorazio profesionalak eta abar eskaini nahi dira, kriminologoak gizartean parte hartu dezan eta gizartearentzat beharrezko kontsideratuz.

VIII. Bibliografia

- GARCÍA-PABLOS DE MOLINA, Antonio (1999). *Tratado de criminología*. Valentzia: Tirant lo Blanch.
- SERRANO MAÍLLO, Alfonso (2006). *Introducción a la Criminología*. Madril: Dykinson.